

Sortu da SORTU, Euskal Herri mailan, eta sortu dugu SORTU, Irunen ere. Herri honetan ezker abertzaleak azken hamarkada luzeetan izan duen kapital politiko eta humanoa bilduz, generazio ezberdinak batuz, arlo ezberdinetan borrokan dihardugun militanteak elkartuz, borrokara bildu den jende berriarekin batera sortu dugu Irungo Sortu, eztabaida prozesu luzearen ostean. Ez da erraza izan, baina merezi izan du.

Herri honen nahiari erantzunez, legez kanporatzeen aro krudelari aurre egiteko herri gogoa bururaino eramanda gauditu dugu apartheid politikoaren aroa. Ezker Abertzaleak "Zutik Euskal Herria" ebazpenean jasotako estrategia berrituaren ondorio organizatiboa izanik, aurrerantzean estrategia horren garapenerako tresna izango da Sortu, independentziaren eta sozialismoaren bidean eta Prozesu Demokratikoaren baitan, eraldaketa politikoa eta soziala erdiesteko erreminta dugu ezker abertzalearen egitura politiko berria.

Orain da unea, iragana atzean utzi eta geroa erdiesteko. Igarobidea eraiki behar dugu, inoiz egin ez den egiazko trantsizio demokratikoa gauzatzeko. Horregatik, hain zuzen, gatazkaren ondorioei eta iturburuari erantzungo dien ariketa osoarekin erabat konprometituta dago SORTU.

Gure konpromisoa sendoa da: herri nahia errespetatuz eta errespetaraziz, Euskal Estatuaren egitasmoa bururaino eramatea. Askatasun osoa, horixe dugu helmuga bakarra, horretarako askapen nazionalari eraldaketa soziala elkarlotu behar zaiola jakinda. Guretzat helburu bera baita, gizon-emakume askeez osaturiko Herri askea lortzea.

Nazio mailan aurrera eramango ditugun printzipio eta egin-moldeok beren isla izan behar dute Irunen ezinbestez. Gauden tokitik bertatik hasi behar dugu, egunez egun, biharko Irun independentista, ezkertiar, euskaldun eta feminista eraikitzen. Badugu nahikoa lan. Eta badugu nahikoa ardura.

Gipuzkoako bigarren hiria dugu Irun; 80.000 biztanle inguruko eskualdearen buru. Bizitza handiko hiria da gurea, merkataritzan, kulturen, industrian eta herri mugimenduan, besteak beste. Euskal Herri askearen etorkizunarentzat gakoa da Irun.

Hala ere, herri honen ongizatea ez dago berez bermatuta. Udalaren kudeaketan hutsune handi eta larriak ikusten ditugu egunez egun. Eredu batek ekarri gaitu gaur egungo egoerara, eta agorturik dagoen eredu honen alternatiba bakar bezala lan egitera dator Sortu, Bilduren baitan. Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea demokratizatzeraz eta herritarrei zabaltzeraz gatoz. Aspektu sozio-ekonomikoan ere hodei ilunak eta errealtate lazgarria ditugu nagusi. Langabezi tasa %19,2koa da Irunen, azken datuen arabera. 5.545 irundar lanik gabe. Gipuzkoako tasarik altuena dugu. Egoera honek eragin are eta lazgarriagoak ditu berezko bazterketa soziala pairatzen dutenengan, etorkinak, emakumeak eta gazteak kasu. Emakumeak etengabeko krisian bizi dira eta egungo krisi ekonomikoaren aurpegi ilunena sufritzen dute, prekarietatea, zapalkuntza eta menpekotasuna areagotuz. Galdutako belaunaldia ere deitu izan izan zaio engranaje ekonomikoan lekurik ez duen gazteriari, eta etxetik alde egiteko ateak zabaldu dizkiete. Ez dugu onartuko inposaturiko eredu kapitalista gainbeheran dagoen honetan, etorkizun baten bila gazteek Irundik alde egin behar izaterik.

Bestalde, Euskararen egoerak ere biziki kezkatzen gaitu. Guztiek finean, baina belaunaldi berriek, batez ere, euskararen ezagutza aurrera urratsak egin arren apenas dute espaziorik etxean eta kalean euskaraz ari eta bizitzeko. Lan asko dugu egiteko alor hauetan eta beste askotan, eta ardura hori hartzeko prest gaude.

Irungo Sortuk iturri horretatik edaten duenik ezin da ukatu. Hemen bildu garenok herri eta langile borroka zahar eta berri ezberdinetatik gatoz, herri eta jendarte askearen aldeko borroka egitera betiko askatasun helburua ipar izanik.

Euskal Herria eta Irun egunero-egunero eraikitzea dugu funtsezko eginbeharra, ikuspuntu sozialetik, politikotik, ekonomikotik eta kulturaletik. Gizon-emakume ororentzako justizia soziala eta haien arteko parekidetasuna, ama-lurrarekiko errespetua eta hizkuntza nazionalaren suspertzea izango dira, besteak beste, gure lan eremuak.

Iruten, 2013ko martxoaren 10ean
Irungo Sorturen Herri Kontseilua